

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ayerdi lehendakariordeak Belateko Mendateko errepidea bisitatu du, tunelen hurrengo itxierari begira egindako berrikuntzaren ondoren

Milioi eta erdi eurotik gorako inbertsioa egin da bidea egokitzeko lanetan

Ostirala, 2018.eko ekainak 1

Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik ostiral honetan bisitatu du NA-1210 errepidea, bide hori erreformatu eta egokitzeko egin diren obrak bukatu ondoren. Lanek 1.612.059,91 euroko aurrekontua izan dute.

Obra Publikoetako zuzendari nagusi Natxo Nagore ondoan zuelarik, lehendakariordea ekintza nagusiak egin diren eremuetan gelditu da.



Ezkerretik eskuinera: Juan Serrano eta Natxo Nagore, Obra Publikoetako ZNkoak, Manu Ayerdi eta Peio Ayerdi.

Datorren astelehenetik aurrera, Belate eta Almandozko tunelak konpontzeko lanak hasi bezain laster, bide honetako trafikoa erruz ugarituko da. Bihurgune asko dituen trazadura eta plataformaren zabalera kontuan hartuta, aurreratzea debekatu da mendateko 12 kilometroetan, iparralderako noranzkoan. Helgoalderako noranzkoan, aurreratzeko aukera izanen da (ibilgailu arinentzat besterik ez), zirkulazio-noranzko berean karril bat baino gehiago dituzten tartetean.

Txirrindulariek debekatua izanen dute hortik igarotzea.

Galtzada egokitzeko lanak

Erreforma honen barnean, galtzada egokitzeko lanak egin dira; hala nola, pretilak, fabrikako lanak, murrak eta drainatzea ordezkatu edo hobetzea, zorua sendotzea, zuhaitz eta zuhaixkak inausi edo moztea eta lurrezko zein hormigoizko arekak garbitzea. Horrekin batera, kontserbazio lan hauek egin dira: babesteko barrerak eta seinaleztapen horizontala zein bertikala berritzea eta trafiko-murrizketen eta ordezkotako ibilbideen berri emateko kartelak jartzea.

Mendatearen hasierako 5+020 Pkan dagoen aparkalekuaren egokitzapena izan da lanik nabarmenenetako bat. Gune honetan, galtzadaranzko malda duen aparkalekuaren zoruko gainazaleko urak ibiltzen ziren bihurgunearen trazadura hobetu da eta kutxatila bat jarri da urak biltzeko.

Era berean, egiturari eusteko sistema berri behar izan da 27+140 PKan (NA-1210-1 errepideko 0+200 PKarekiko azpiko pasabidea) eta araudi berrira egokitutako euspen-barrera metalikoaz hornitutako pretil berri batekin ordezkatu da. Horrez gain, 11+200 PKan duen ezpondaren finkapena konpondu da, eusteko horma igoz.

Zorua indartzeko lanei dagokienez, helburua zoruaren gaitasun estrukturala datozen hilabeteotan jasan beharko duen trafikora egokitzea izan da. Horretarako, narriatuta zeuden materialaren geruzak erabat zein zatika eraberritu eta nahaste berria zabaldu da luzera osoan.

Areketan eta bazterretan ere zenbait ekintza gauzatu dira. Zehazkiago esanda, zuhaitzak inausi eta mozteko lanak egin dira ikusgaitasuna hobetzeko eta adarren erorketak eragin ditzakeen balizko inpaktuak saihesteko, eta goitik behera garbitu dira drainatze egokia bermatzeko. Gainera, 5. kilometrotik aurrera, bazterbideak beheratu dira.

Seinaleztapen horizontala eta bertikala

Orain arte deskribatutako egokitze-lanez gain, errepidearen 12 kilometroko ibilbidea berriz ere pintatu da, aurreratzea debekatzen duen lerro jarraitu batez, etxeetarako sarbideak izan ezik, eta babesteko barrerak berri dira, halakorik ez zegoen tartetan berriak jarritz eta desegokiak edo araudiarekin bat ez zetozenak ordezkatzuz.



Itxitako kurba Portuaren diseinuan.

Seinaleztapen bertikala hobetu da NA-1210 nahiz N-121-A errepideetan. Lehenengoan, zirkulazio-kodeari dagozkion 84 seinale ordezkatu eta lau kartel handi jarri dira mendaterako sarbideetan, trazadura eta maldagatik errepide arriskutsua dela jakinarazteko. Halaber, N-121-A errepidean, mendateko muturretatik hurbilen dauden gasolindegietan, kartelak jarri dira gertuko gasolindegien ordutegiak eta distantziak jakinarazteko, kamioiak Belaten dabiltean bitartean erregairik gabe geratzeko eta trafikoa eragozteko arriskua saihestu nahirik.

Azkenik, fluor-horia koloreko neurri handi-handiko 8 kartekek (26 eta 45 metro koadro bitarteko azalera dute) trafiko-mugapena zehaztuko dituzte. Honela kokatu dira: bi kartel AP-15 autobidean Iruñera sartu baino lehen, bat Ezkabako tunearen hegoaldeko aldean, bi Ezkabako tunearen iparraldeko aldean, bat N-121B errepidearen Iruñerako noranzkoaren Dantxarineko azken zatian eta beste bat N-121A errepidearen Gipuzkoako Puntxas aldean, Iruñerako noranzkoan, Berara iritsi baino lehen. Hau da, eremu estrategikoetan, lau ardatzeko edo gehiagoko garraio astunari eta merkantzia arriskutsuen garraioari trafiko-murritzaketak ezagutzera emateko asmoz.

Ekintza plan integrala

Gogoratuko denez, Nafarroako Gobernuak [ekintza plan integrala](#) abiarazi du trafikoaren gaineko eragozpenak murrizteko eta N-121-A errepideko zirkulazioaren segurtasunari buruzko baldintzak bermatzeko, azaroa arte ixtera behartuko duten hobekuntza lanen ondorioz.

Mendateko errepidea moldatu eta egokitzeko lanez gain, akordioa lortu da AP-15 autobideko enpresa esleipendunarekin Zuastiko ordainlekuan bidesaririk ez ordaintzeko, eta laneak dirauten bitartean, komunikazio eta informazio plana garatu eta trafikoaren zaintza indartuko da poliziaren laguntzaz.

Galería de fotos



Desbroce de los márgenes de la NA-1210.



Trabajos de embreado.



Desdoble del carril en el PK. 8.